

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

1. Zer funtsezko baliabidek eskatzen du gure balio-proposamenak?

Materialak (teknologikoak, fabrikaziorako beharrezkoak direnak...), diru laguntzak enpresa aurrera eramateko, denda fisikoak (frankiziak ere), langileak (dendariak, telefono zerbitzukoak, mantentze lanetan dabilenak, programatzaileak...) osasunean adituak diren espezialistak, dirua kudeatzen duten espezialistak.

2. Nola eskuratzen ditugu funtsezko baliabide horiek?

Materialak erosten, diru laguntzak eusko jaurlaritzari eskatzen eta gure proposamena aurkeztuz. Denda fisikoak, lokalak toki estrategikoetan irekitzen, bezero gehiago lortzeko. Langileak iragarkien eta elkarrizketen bidez hautatuz.

3. Noiz behar ditugu?

Eskuratzen ditugun funtsezko baliabide horiek hasieran behar ditugu. Azkenean, negozio bat hasterakoan, lehenik eta behin eskatzen duguna laguntza da.

4. Zer baliabide eskatzen dituzte erabilitako banaketa-kanalak?

Denda fisikoak eta interneten web orriak izango ditugu eta zuzenean gaixoei salduko diegu produktu hori, hau da, diabetesa duten pertsonen eta erloju hau behar dutenei.

5. Zein dira zure negozio-ereduko baliabide garrantzitsu eta garestienak?

Materialak eta dendak dira baliabide garrantzitsu eta garestienak.